

Kaleko paperak banatuko ditugu gure denda eta arropa berrerabiltzeko proiektuarekiko interesa duten pertsonei. Paper hauek informazio zehatza eskainiko dute, hala nola, nola eta non erosi jantziak eta zer onura ekar dezaketen bezeroei, bai estetika aldetik bai erosotasunaren aldetik.

Paper horietan, baita ere, gure denda berria inauguratuko dela jakinaraziko dugu, eta inaugurazio egunean, arropa guztia %50eko deskontuarekin eskainiko dugu, bezeroek aukera izan dezaten gure produktuak probatzeko eta erosteko. Horrela, denda berrian esperientzia atsegina eta arrakastatsua izan dezakete, eta, gustura egon badaitezke, berriro ere itzultzeko gogoia izango dute.

Helburu nagusia da gure bezeroak erakartzea eta, inaugurazio eguna aprobetxatuz, lehenengo erosketa egin ondoren gure denda eta arropa zaletuak bihurtzea. Horrela, bezeroak harreman iraunkorra izateko aukera izango dute eta gure denda bisitatzea etorkizunean nahi izango dute.

Sare sozialen bidez gure enpresari buruzko informazioa emango dugu bezero berriak lortzeko edo betiko bezeroak gure dendaren informazio gehiago edukitzeko eta LEJ-en eskaintzen ditugun berritasunak ikusteko.